



**2025EKO UZTAILAREN 28KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko uztailaren hogeita zortzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko ekainaren 16an, ekainaren 30ean eta uztailaren 14an egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 61 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA ZORTZI MILA ETA HOGETA BAT euro ETA BI zentimokoa (68.021,02 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- MEANDRO ALDEKO OINEZKOENTZAKO BIDEAREN PROIEKTUA EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2025eko ekainaren 3an egindako bilkuran, Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza teknikoen eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2025eko ekainaren 9an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 3 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.
- SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.
- CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zuten "A" artxibo elektronikokoak 2025eko uztailaren 1ean, eguerdiko 12:30etan, ireki ziren.

"A" artxibo elektronikoen dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako enpresek aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	CONSTRUCCIONE S M.B. ANTIO, S.L.L.
Laneko programa eta obra plana (15 puntu) Programa de trabajo y plan de obra (15 puntos)	14,00	14,00	10,00
GUZTIRA	14,00	14,00	10,00

2025eko uztailaren 8an, eguerdiko 12:30etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenek balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten "B". zenbakiko artxibo elektronikokoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 3 enpresek aurkeztutako eskaintzak:

ENPRESA	Proposamen ekonomikoa	Berme-epea
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	174.354,23 €	5 urte / años
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	178.942,04 €	5 urte / años
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	179.208,00 €	5 urte / años

Enpresa lizitatzailerak lortutako puntuazioen sailkapena, handienetik txikienera:

ENPRESA / EMPRESA	Prop. teknikoa	Prop. ekonomikoa	Bermea	GUZTIRA
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	14,00	75,00	10,00	99,00
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	14,00	72,40	10,00	96,40
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	10,00	72,25	10,00	92,25

Ondorioz, eta lehen sailkatua CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileraren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.-k fidantza eratu du.



Hau honela, kontratazio mahaiak CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.-ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botoz (EAJ), 2 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenena.- Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.-ri esleitzea, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro ETA HOGEITA HIRU zentimo (174.354,23 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrenena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IV.- SASIETAREN 2024KO EKARPENAREN ERREGULARIZAZIOA.-

Sasieta Mankomunitateak, bera osatzen duten Udalek 2024an egindako ekarpenen erregularizazioa egingo duela jakinarazi du. Hori dela eta, mankomunitateak helarazi duen txostenaren arabera, Lazkaoko Udalari 9.203,19 € ordaintzea dagozkio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Sasieta Mankomunitateari 9.203,19 € ordaintzea onartu du, 2024ko ekarpenaren erregularizazio gisa.

V.- 2024KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIRUARENGATIKO HOBARIA.-

Udal honek %50eko hobaria araututa dauka Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan Alokabideri emandako etxebizitzentzat edota beste bide batetik alokatutako etxebizitzentzat.

2024 ekitaldian zerga ordaindu eta egoera horretakoren batean daudenek hobari hori eskatu ahal zezaten, 2025eko maiatzaren 12tik maiatzaren 30era bitarteko epea ireki zen.

Epe horretan aurkeztutako eskaerak, eta hobaria lortzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertu ondoren, Udal teknikariak hobari horiek onartzeko proposamena egin du.

Proposamenean, 60 laguni guztira LAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA SEI euro ETA HOGEITA BOST zentimo (4.846,25 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hauek onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarreraren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.



VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea uztailaren 14tik aurrera, astean 8 ordutik 4 ordura. Onuradunen ekarpena % 15ekoa izango da.
- 21-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea uztailaren 9tik aurrera, astean 5 ordutik 6 ordura. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 25-11-07 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea ekainaren 21ean, astean 6 egunez eta eguneko 1,5 orduz, laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 25-11-08 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea uztailaren 7an, astean 6 orduz, etxeko garbiketarako eta laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 35ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 25-01-008 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 168 €-ko dirulaguntza eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 56 da.
- 25-01-009 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: garraiorako, maiatzean 300 € eta ekainean 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

Ludoteka eta kirol ikastaro zerbitzurako dirulaguntza.-

Meimuna Fadali Mohamed-ek ludoteka zerbitzura joan ezingo duenez, 2025eko ekainaren 16ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu zitzaion 94,30 €-ko dirulaguntza ez ematea.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: seme-alaben igeriketa ikastaroak ordaintzeko ondorengo dirulaguntzak ematea:



LAZKAOKO UDALA

- Alabak urtariletik maiatzaera egindako igeriketa ikastarorako 60,04 €-ko dirulaguntza ematea.
- Semeak urtariletik martxora eta apiriletik maiatzera egindako ikastaroetarako 131,36 €-ko (75,06 + 56,30) dirulaguntza ematea.

Eskatutakoaren % 100 da.

- 24-23-14 zenbakidun esped.: seme-alaben ikastaroak ordaintzeko ondorengo dirulaguntzak ematea:
 - Semeak urtariletik martxora egindako igeriketa ikastarorako 75,06 €-ko dirulaguntza ematea, eta apirila eta maiatzean egindako igeriketa ikastarorako 56,30 €-ko dirulaguntza ematea.
 - Alabak urtariletik maiatzera egindako marrazketa ikastaroetarako 172,50 € (28,75 x 6) ematea.

Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-03 zenbakidun esped.: kiroldegiko urteko bonua ordaintzeko 215,20 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-04 zenbakidun esped.: kiroldegiko urteko bazkidetza familiarraren bonua ordaintzeko 295,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-05 zenbakidun esped.: kiroldegiko urteko bazkidetza familiarraren bonua ordaintzeko 295,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Iparra Hegoa programa.-

Egoazia Garapen Lankidetzarako Elkartek 2024 urtean aurkeztutako proiekturako luzapen eskaera aurkeztu du, "KUSHMA proiektua: gizarte-bizitzaren euskarria" deritzona. Esku-hartze eremuan izandako eurite handien ondorioz, zailtasunak izan dira eta horrek atzerapenak eragin ditu jarduerak ezartzean. Eguraldiak komunitate indigenetara iristea zaildu du.

2025eko abuztuaren 31ra arteko luzapena eskatu dute, proiektua burutu eta azken txostena Lazkaoko Udalari aurkezteko. Luzapena onartu da.

Gipuzkoako Elikagai Bankuari.-

Gipuzkoako Elikagai Bankuari 1.264 €-ko dirulaguntza ematea 2025 urterako.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 307 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

Euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzak arautzeko oinarriak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak 2021eko otsailaren 22an onartu zituen euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzak arautzeko oinarriak, eta hauek 2021eko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Euskarako batzordeburuak oinarri hauek aldatzeko egindako proposamenaren aurrean, batzorde honek honako aldaketak onartu ditu:

Hau zioen tokian:

"- 2. oinarria. Onuradunen betekizunak.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira nahitaez:

- Ikastaroa hasterako Lazkaon gutxienez urte bete edo gehiagoz erroldatuta egotea.
- 16 urte beteta izatea."

"- 5. oinarria. Eskabideak aurkezteko epeak eta lekuak.

...

Eskabideak ikasturtea hastearekin batera aurkeztuko dira."

Honakoa esatea:

"- 2. oinarria. Onuradunen betekizunak.


Dirulaguntza jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira nahitaez:

- Ikastaroa hasten den egunean Lazkaon erroldatuta egotea.
- 16 urte beteta izatea edo ikastaroa egiten den urtean betetzea."

"-5. oinarria. Eskabideak aurkezteko epeak eta lekuak.

...

Eskabidea egiteko epea ikastaroa hasten den egunetik, hau amaitu eta handik 15 egunera artekoa izango da."



LAZKAOKO
UDALA

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

